

Ipuinak, tabuekin hausteko

Teresa Costa-Gramunt



(Bartzelona, 1951). Idazle, Diseinu Grafikoan graduduna. Kataluinako Exlibristen Elkartearen fundatzaile eta baita Som 7 Emakume Artisteen Elkartearen lehendakaria ere. Hogeitabost liburu baino gehiago argitaratu ditu, saiakera, narrazio, olerki eta prosa poetika kontatuz. Horien artean, nabarmentzekoak dira: *El vel de l'Harmonia* (1991), 1990ean Don-na saria; *La Porta Índia* (1997); *Noviluni a Washington* (2001); *Llibre de l'Amic* (2002), *La crisàlide* (2002), *El rostre del vent* (2002); *Sol ponent, sol ixent* (2004); *Lull de Poliferm* (2004), Lore Naturala 2002ko Urrezko Isatsako Lore Jokoetan, eta *Santuari grec* (2005).

Oriol Pi de Cabanyes-ekin batera, Eugeni d'Ors-en *La veritable història de la Lídia de Cadaqués*en katalanezko itzulpena argitaratu du eta *Històries i llegendes de Víctor Balaguer*-en katalanezko itzulpen bat egin du ere. Horrezaz gainera, *Diari de Vilanova*, Sitgesko *L'Eco*, *El 3 de Vuit* eta *Bonart* aldizkarian artikuluak idatzi ditu.

Ama, ama, zergatik utzi nauzu?

Teresa Costa-Gramunt

Eguzkiak aurrez aurre jotzen du, begiak negargarriro mintzen dizkio. Txikitari Cadaquesen ematen zituen udaldietan egin ohi zuen eguzki mingarri eta errukigabe bera da. Hamaika urte zituen Cécilek artean, eta begiak hondar ilun-zakarretik altxatuz beldur itzelez bilatzen zuen abandonatzen ari zuen amaren begirada.

Gaur, Port Lligat-eko hondartzarako bidean, zehaztasun osoz gogoratzen du Luis Buñuelek bere ama ito nahi izan zueneko. Oraindik ikusten ahal du Buñuel heriosuharrean, deabrutu baten pare, nola oldartzen zaion orein-irudi bati. Ikusten dizkio begiak dir-dir, basati, irten beharrean, hamaika urteko neskatoari hotzi-karak eragiten dizkionak.

Arratsalde hartan adiskide-taldea mendira afari-merienda egitera joana zen. Gala Éluard, galtza motzak janztega gustuko zuena, haserre zegoen Luis Buñuelekin, hark lau haizetara zabaldu zuelako emakumeen anatomiatik gehien atzera egiten zuena zango meheak zirela, barrualdean elkar ukitu ordeztu hutsarte bat uzten zuten zango horiek... Eta horrelakoxeak ziren Galarenak. Eta, hain zuzen, bera zerbaitez harro baldin bazegoen, bere gorputzaren armoniaz zegoen. Dalik bere margolan lortuenetan hainbeste laudatu zuen gorputza bera, hain zuzen.

Giro onean zihoan afari-merienda, supituki, Galak zinismoz jaurtitzen zizkion zirikadak xaxatua, apo baten gisa haren lepora jauzi egin zuenean. Apoak jauzi egin zion katamotz baten hatzazparrez itozteko asmoz. Cécile txikiak garrasi egin zuen izuturik, bere indar guztiaz egin zuen garrasi, mamuak harrapakina lurrean aske utzi zuen arte. Gertaera bortitza hau eta begi niniak itsutzen zizkion eguzki galda ziren Cadaqueseko egonaldiaz oroitzen zituen gauza bakarrak.

Bortizkeria fisikoa, argi bortitza eta, bestalde, amaren abandonu prozesuak eraginda ernatzen zihoakion sentsazio bortitza... Zeren 1929ko udaz geroztik, Gala Éluard Gala Dali bilakatuko zen, eta Cécile Éluardi buruz, harez geroztik, gaur Port Lligaterako bidean dagoen neskari buruz alegia, ama babesle-elikatzaille arketipoa hautsiz ez zuen ezer jakin nahi izango.

Gala bakarrik Dalirekiko izango zen amatiarra, eta berandua-go alproja haiekiko ere, jada zahartzarotan, dirudunek Daliren ko-adroak erosten zituzten prezio berean erosi zituen maitale gazte haiekiko. Cécile, Galaren alaba bakarra, istripu bat izan zen bere bizitzan. Ondoren, enbarazu eta ahanztura. Bitartean auzoko mihi-gaiztoek esango zuten: “*habia uzten duen txoriari bezala, haurra abandonatzen duen amari ere...*”

Port Lligaterako bidean doala eguzkiko argi biziak itsutzen du Cécil. Esan liteke ez duela ezer ikusten; argi opako batek gidatuko balu bezala ilunpetan doa. Alaba-senak eraginda doa, desiratuko luke bere sentimendua, borondatezko ala senezko ote den ezin jakin, ibaiaren urek egiten duten bezala amaren maitasunaren itsaso zabalean itsasora dadila. Cécile Eluardek, biziro nahi du Cadaquesen hiltzen ari zaion amari azken besarkada ematea.

Gala bere gelan hiltzorian dago. Trobadore sutsu baten eta bere dama pinpirinaren artean behin hasitako amodio istorio arranditsua, makila kolpe zakar batez bukatu da. Mihigaiztoen arabera, hilabete batzuk lehenago, Dalik eskaileretan behera erorarazi zuen Gala.

Cécilek agur esan nahi dio amari, Gala besarkatu nahi du, bere ustez justifika ezina den arbuioaren aurrean ez du etsitzen. Dali eroarekin 50 urtetan zehar Galak banatu duen etxeko atea jotzen duenean, dardarka darabilzkio zangoak. Betaurreko ilunak ez ditu kendu, zeruaren zurtasunak eta hormek itsutu egiten dute... 1929ko irail haren argi hilgarriraino eramaten duen zurtasun beldurgarri huraxe da, Galak Cadaqueseko hotelean bakar-bakarrik uzten zuen garaietaraino, bera Port Lligaten zegoen Dalirengana joana, nahiz eta, harkaitzen lorategian Dalirekin jolasteko gogo bizia zuen haurra izan bera.

Gala hiltzen ari da bere gelan. Femur hezurra hautsi zuelako ospitaleko egonaldian zehar, Dalik zientzia-aldizkariak buru-belarri irakurtzen eman du denbora, Gala zaindu gabe, bere zaharkitze propioaren nola heriotzaren ispilu den giza gainbeheraz, hala nola gertu dagoen Galaren heriotzaz, ezer jakin nahi ez duelarik. *Istripuaren* ondorioak bere azkenetara bultzatu du Gala, hilezkorra eta ederra zen Galaren gorputz artistikoa usteltzen ari da orain zauri izugarriren artean.

Etxeko sarreran zutik, Cécil zain dago noiz sartzen utziko duten. Betaurreko ilunak eskuan dituela, non jarri ez dakielarik, urduritasunak keinurik arruntena ere eragozten diola. Egun beroa da, maiatzeko argiak antza handia du bere haurtzaro triste haren irailenkoarekin.

Gala begi itxita dago. Ezin da jakin Dali bera ote den eragozten duena Cécilen bisita. Mirabea logelatik bueltan, Cécileri bere amak ez duela ikusi nahi jakinarazten dio. Ezta hil orduan ere ez duela Cécile berraurkitu nahi.

Cécilek balantzaka, pauso batzuk emateko imintzio egiten du, bere animoak hondoa jotzen du Port Lligateko ate zuria dardara bizian zeharkatzen duenean. El Boscoren kuadro bateko sutean erretzen diren deabruen gisan malkoek erretzen dizkiote betaurreko ilunen azpian ezkututzen dituen begiak. Abailduta, azpiratua, gutxietsia, oihu egiten du abere zauritu gisan eta gora begira, argi itsugarrirantz begira, ozenki esaten du: ama, ama, zergatik utzi nauzu?